

Martutene

“Kalteak saihesteko bidea tunela eraikitzea da”

Amaia Etxeberria (fnoa.: 943 391267)

noiz eratu zenuten Okendotegi, Urumeako autobiak kalte-tutakoen elkarrea? Zer proposatzen duzue?


Duela urtebete pasatxo elkartu ginen, Diputazioaren egitasmoa onartu zela jakin bezain laster. Guk zera proposatzen dugu: proiektu ofizial horretako autobidearen zati bat norabidez aldatzea. Desbideratze honekin, autobia baserrien ingurutik igarotzea saihestuko genuke. Horretarako, guk elkarte gisa plangintza berria aurkeztu diogu Diputazioari, eta desbideratze hori egiteko tunel bat eraikitzea proposatzen dugu mendi azpitik, autobia bertatik igaro dadin. Gure proposamena aurrera eramane daitekeela frogatuta dago, proiektua injinieru, abokatu eta nekazaritza adituek egin baitute. Hala ere, Diputazioak atzera bota du.

Diputazioaren egitasmo ofizialak zein neurritan eragiten dizute baserritarrei?

Egitasmo honekin 9 baserri bota nahi dira, eta 26 familia eta 100 bat lagun kaltetuko dira. Niri, pertsonalki, autobia etxetik 11 metrora pasatuko zait, gertuegi. Gure familia 1490, urte ingurutik bizi da hemen, eta horrela, bat batean, autobia erraldoi hori etxe ataritik pasatzeak bihotzean min ematen dit.

Proiektu ofizialean eraistea aurreikusitako baserrietako bizilagunak nekazaritzatik bizi al dira? Etorkizuna jokoan

Urumeako autobia zeresan handia ematen ari da Martuteneko bizilagunen artean. Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektu ofizialak kalte handiak eragingo lituzkeela salatu du Okendotegi elkarteak. Koldo Aduriz elkarteko kidearekin mintzatu gara.



Okendotegi elkarteak salatu duenez, Diputazioaren proiektuak ehun bat lagun kaltetuko lituzke.

al dute baserritar hauek?

Bai, baserri horietatik lau behintzat nekazaritzatik bizi dira. Kaltetuenen artean Goiatz-berri eta Olatxo baserriak daude. Goiatz-berri, ortiflorikultura alorrean Gipuzkoako puntakoena da, eta Espainia mailan ere goi mailan dabil. Lore enpresa da, eta lanpostuak daude jokoan. Olatxo baserriak, berriz, baratzagintza sari ugari irabazi ditu. Uste dena baino askoz gehiago dago

jokoan afera honetan.

Zeintzuk dira zuen alternatiba ez onartzearen arrazoiak?

Egia esan, ez dakigu zehatz zeintzuk diren, baina Diputazioak ez du tunela egiterik onartzen. Diotenez, inguru honetako lurra biginak dira eta ezin daiteke horrelakorik egin. Guk egin daitekeela frogatu dugu, eta zein teknika erabili beharko lirakeen ere zehaztu da txostenean. Tunela gure

KOLDO ADURIZ :
“Udalean harrera ona dugu eta badugu zerbait lortzeko esperantza”

proiektutik kenduz gero, mendia botatzea da beste irtenbidea; baina Diputazioak mendia kentzea ingurugiroa asko kaltetzea dela esan du. Arazoaren gakoa, beraz, tunela da.

Obrak urrian hastekoak dira. Ba al duzue zerbait lortzeko esperantzarik?

Esperantza galtzen den azkeneko gauza omen da. Guk udalean oso harrera ona daukagu, eta zinegotziak eta orokorrean udalbatzarra gure alde daude. Horrek gurearekin jarraitzera bultzatzen gaitu. Egia esan, badugu oraindik esperantzarik.

Proiektu ofiziala aurrera eramanez gero, zer gertatuko da zuekin?

Ez dakigu ezer, guri zuzenean ez digute ezer adierazi, baina badakigu espropiazioetarako 80 milioi pezeta inguru kalkulatu dituztela. Ezer gutxi, beraz.